

PAKEA



Euskal-arbolgaztea
asi da loratzen,
indarrez sustrayetik
dalako goratzen;
sendo ta ederturik
jarko da zoratzen,
bazayo bere lurra
ondo maneatzten.

Sendotzen dan bezela
zañetik gerriya,
ezkurrez izango da
gutziz ugariya;
zarraren ordaingarri
sortu da berriya,
poz-pean bizi dediñ
euskaldun erriya.

Aritz berriyan orri
bakoitza da poza,
dalako edertasun
gutziraño osa;
pozturikan du amak
zabaltzen gaur boza,
berriro gazteturik
daukala biyotza.

Ala, bear diyogu
denak gogor eutsi,
gure lege maiterik
ez dediyen autsi;
ez dezagun oiturak
galtzez oso etsi,
beraren kutsu onik
ez beñere utzi.

Lengo zarrari sortu
zitzayon ajea,
Somorrotu zanean
bere sustraipea;
ordaña zutitu da
eder ta gaztea,
bizirotzeko gure
betiko pakea.

JUAN IGNAZIO URANGA.

